



M8-KO MANIFESTUA

Euskadiko Birgizarteratze Institutuak (IRSE-EBI) Emakumeen Nazioarteko Egunaren (M8) aldarrikapenetan parte hartu nahi du. Horretarako, interseksionalitatean jarri nahi dugu arreta, berdintasun erreal eta eraginkorrerantz aurrera egiteko daukagun konpromisoa islatzeko, eta gizarte feminista, hau da, inklusiboa, eraikitzeko eta indartzeko.

Erreibindikatzeko eta gogoratzeko data bat

Nazio Batuen Erakundeak azaldu duenez, gaur egun, oraindik ere, 2.700 milioi emakumeri gizonen lan aukera berberak izatea eragozten dieten lege murrizketak daude. Era berean, parlamentarien %25 baino gutxiago ziren emakumeak 2019an, eta hiru emakumetik batek genero indarkeria jasaten jarraitzen du munduan.

EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundearen arabera, Euskadin (2018) generoaren araberako lan eta soldata arrakala %24,3koa da; horrek esan nahi du emakumeek gizonen baino 7.552 € gutxiago kobratzen dutela lan bera egiteagatik. Halaber, Lan Baldintzen Inkesta Nazionalaren arabera (2015), emakumeek gizonen baino ordu gehiago igarotzen dituzte beren enplegu nagusian, eta, aldi berean, gizonen baino 12,5 ordu gehiago igarotzen dituzte ordaindu gabeko lanetan.

Pandemia eta zaintzak

NBE eta Lanaren Nazioarteko Erakundea bat datoz ondorio batean: koronabirusak kostu handiagoa ekarriko die emakumeei. Emakumeak dira pandemian bizirik irauteko funtsezkoak diren lanak egiten dituztenak, batez ere osasunaren eta zaintza lanen esparruan, non, gainera, kutsadurarekiko esposizio handiagoa baitute. Bestalde, etxeko lanek eta ugalketa lanek izandako gorakada ere arindu egin dute, eta horrek guztiak egiturazko desberdintasun egoeran jartzen ditu emakumeak lan merkatuan.

Seme-alabak zaintzeko eszedentziak eskatu zituzten emakumeak %92,34 izan ziren 2017an (Emakumearen Erakundeak). Horrek bikain erakusten du oraindik ere gure bizkar geratzen direla zaintza lanak. Karga bikoitza jasaten jarraitzen dugu: batetik, gure lanpostu nagusiaren okupazioa, eta, bestetik, etxeko lanak eta zaintza lanak. Eta hori guztia, lan munduan ari diren emakumeen ehunekoa hazten ari den arren. Horren ondorioz, emakumeok behartuta gaude gure proiektu profesionalak geldiaraztera, ugalketa eta zaintza lanez arduratzeko.

Gainera, pandemiaren eraginak areagotu egin ditu gure desberdintasunak: gure ikusezintasuna handitu egin da, espazio pribatura itzuli gara, eta etxeko murrizketen eta konfinamenduen ondorioz gudan



egindako kontrola areagotu egin da. Hori dela eta, eta zaintza sektoreetan –hala nola osasunaren arloan– emakumeen generoak duen kontzentrazio handia kontuan hartuta, guk hartu ditugu, beste behin ere, karga handienak generoak bultzatuta.

Interseksionalitatea: arrazaren eta klasearen ikuspegia txertatuz

Feminismoen subjektu politikoa emakumeak dira –emakumeak, pluralean–, jabetzen garelako, besteak beste, klase, etnia, arraza, belaunaldi eta sexualitate desberdinak daudela. Horren ondorioz, emakume migratzaileek eta arrazializatuak diskriminazio hirukoitza jasaten dute; hots, klasearen, generoaren eta arrazaren araberakoa.

Pandemia honek, krisialdi guztiek bezalaxe, bereziki zigortu ditu emakume migratzaileak eta arrazializatuak: zailtasun handiagoa enpleguan eta lan prekarietatea, gizarte aurreiritziak, etxebizitza eskuratzeko zailtasunak, etab.

Zaintza lanei heltzeko, ikuspegi interseksionala behar da; izan ere, gure gizarte ingurunean zaintza lanak egiten dituzten emakume gehienak emakume migratzaile eta arrazializatuak dira, eta mugaz gaindiko giza mugikortasunaren fenomenoaren parte dira. Beraz, premia hau larrialdia kategoriakoa da.

Estatuan, etxeko lanak eta zaintza lanak egiten dituzten 600.000 langile baino gehiago daude, eta horien artean 200.000k ezkutuko ekonomian lan egiten dute; horietako asko, gainera, egoera administratibo irregularrean daude. “*Mujeres Diversas o las Cuidadoras sin Papeles*” Elkartearen arabera, milaka langile egon dira kutsatzeko arriskuan, zaintzen dituzten pertsonak ikustera ospitalera joatean edo pertsona horiek etxean zaintzean. Familia enplegatzaile batzuek atzera egiteko formula erabiliz kaleratu dituzte emakume horiek, eta horrek eragotzi egiten die ABEEetara jotzea. Gainera, kaleratzean, aldi berean galdu dituzte lana eta ostatua. Horrelakorik gertatu ez zaien eta barne langile jarraitzen duten askok, berriz, lanaldi amaigabeak egin behar izaten dituzte edo gaixorik lan egin behar izaten dute. Gainera, osasun larrialdi betean, ospitaleek eta adinekoen egoitzek langileak behar zituztela jakin arren, emakume askok ezin izan dute enplegu horietara aurkeztu, paperik ez zeukatelako.

Bat gatoz Montse Pineda Creación Positiva GKEko intzidentzia arduradun eta Consell Nacional de Dones de Catalunyako bigarren presidenteordearekin, esaten duenean osasun politika publikoek ez dutela genero ikuspegia txertatzen, eta ezta adinekoentzako baliabide sozialek edo soziosanitarioek eta zaintza zerbitzuen egituraketak ere, ez baitira kontuan hartzen zaurgarritasun eta arrisku faktoreak, bizi baldintzak



eta gizarte desorekak, eta horiek guztiek pandemia paralelo eta interseksionatuak sortzen dituzte.

Indarkeria matxistak, alerta bikoitza

2020an jarritako salaketen kopurua (79.039, maiatza eta apirila kontuan hartu gabe) 2019koa baino txikiagoa izan bada ere, pandemia nagusi izan den urte honetan %14,8 igo dira 016 telefono zenbakira egindako deiak: 78.886 guztira.

Horrek egiaztatzen du genero indarkeria eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna indarrean daudela, eta pandemiaren murrizketek desoreka hori adierazteko bide alternatiboak bideratu besterik ez dutela egin.

Emakume horiei guztiei zuzendutako hitzak dira gureak: egunerokoan aurrera egin, eta bizirik irauteko modua aurkitu dutenei; irteera bat aurkitu edo salatu ahal izan dutenei; ororen gainetik, konfinamenduan egoerari eutsi ahal izan dioten eta hala jarraitzen duten guztiei. Gure hitzak hauentzat ere badira: bakarrik erditu behar izan direnentzat; osasun sistemaren prekarizazioaren ondorioz indarkeria obstetrikoki aurre egin behar izan diotenentzat; eta sexu osasunaren arloko autozaintzari uko egin behar izan dioten emakumeentzat.

Eta gizon guztiei zuzendutako hitzak ere baditugu, gai izan gaitezen maskulinitate sano bat garatzeko, eta uler ditzagun indarkeriarik gabeko eta berdintasunean gehiago oinarritzen diren harremanak.

Aipatutako arrazoi guztiak tarteko, beste urte batez, ezinbestekoa da egunez egun berdintasunaren alde borrokatzen diren pertsona, erakunde sozial eta politikoen konpromisoa agerian jartzea. Gizarte berdinzaleago baten alde lan egiteko, eta, bereziki, emakumeen aurkako indarkerien prebentzioan eragina izateko, herritar guztien ahaleginak batu behar dira; guztiok gara baliagarriak, eta denok egiten dugu gure ekarpentxoak, berdintasunezko mundu bat, indarkeria matxistarik gabea, sortzeko.

"Sozialki berdinak, gizatasunez desberdinak eta erabat askeak izango garen mundu baten alde". **Rosa Luxemburg.**

